

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#) > **Anaïs Nin euskarara ekarri dute, aurreneko aldiz**

CULTURA

Anaïs Nin euskarara ekarri dute, aurreneko aldiz

Txalaparta etxeak 'Venusen delta' eman du argitara, Garazi Arrulak euskaratu dituelarik horko kontakizun erotikoak

10.04.13 - 00:08 - F. I. | DONOSTIA.

0 Comentarios |
 Twitter 0
 +1 0
 Compartir
 Recomendar 9
 0 votos

Anaïs Nin euskaraz irakurtzeko aukera dago atzo ezkeroztik, lehenbiziko aldiz. 'Venusen delta', hamabost kontakizun erotiko dakartzan liburua euskarara ekarri du Txalaparta etxeak.

Jakina denez, Anaïs Nin (1903-1977) izan zen lehenengo emakumea istorio erotikoak idatzi zituen. Frantzia jaioa, 1939an Estatu Batuetara joan zen bizi izatera. Diruz oso larri zebilenez, onartu zuen gizon oso aberats batek egindako eskaintza, eta harentzat kontakizun erotiko esplizitoak idatzi zituen, orrialdeko dolar bat jasotzen zuelarik.

1940ko hamarkadan ida-tzi zituen lan haiek. Hasiara batean, oso muturrekotzat, oso karikatura tankerakoak jotzen zituen pertsonaia haiek, baina 1970eko hamarkadan iritzia aldatu eta publikatzeko baimena eman zuen.

Nolanahi ere, idazle honen libururik ezagunenak egunerokoak dira. Ia-ia haurra zen ezkeroztik idatzi zituen egunerokoak, eta haiekin argitalpen asko egin dira. Helduaroko izkribuetan pertsona ezagun asko ageri dira. Harreman iraunkorak izan zituen, adibidez, Henry Miller, Antonin Artaud, Otto Rank, Edmund Wilson, Gore Vidal, James Agee eta Lawrence Durrell.

Garazi Arrula itzultzaileari dagokionez, hauxe izan du lehenbiziko lan luzea. Tafallan jaioa, Itzulpengintzan lizentziatutakoa da eta, atzoko aurkezpenean esan zuenez, lexiko erotikoa izan du buruhausterik handiena: «Arlo horretan apenas dagoen batasunik. Adibidez, gauza bera esateko 'etorri', 'joan', 'heldu' eta 'korritu' idatzi izan da euskaraz. Nik, berriz, 'orgasmora heldu' esamoldea erabili dut sarri».

«Orain esaten dute '50 sombras de Grey' iraultzailea dela, baina Anaïs Ninek eta Sadeko markesak iraultza askoz handiagoa ekarri zuten», gaineratu zuen.

Itzulpen-lan honetan, Arrulak Fernando Rey izan du gainbegira-tzailea.



Garazi Arrula itzultzaile nafarrak euskaratu du liburua. :: **USOZ**